



Azpeitiko Udala

OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, AZPEITIKO UDALEKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: Udalbatza Osoak, bi mila hamazortziko urriaren bian, hitzez hitz jasorik honako hau dioen erabakia hartu zuela:

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA AZPEITIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA LOIOLAKO SANTUTEGIAREN INGURUAN DAGOEN PARKEAREN MANTENURAKO.

Aurrekariak:

Gipuzkoako Foru Aldundia Loiolako Santutegiaren, eta inguruko lursailen jabea da. Lursail honetan Loiolako Santutegiko parkea bezala ezaguna den zona berdea dago kokatuta (44.220 m²ko lursaila da).

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nekazaritza alorreko sailak eta Azpeitiko Udalak **1984ko maiatzaren 25ean** HITZARMEN bat sinatu zuten gune honen mantenurako. Hitzarmen hori orain arte indarrean egon da, baina orain ikusi da nahiko atzeratuta geratu dela, eta egungo mantenu beharrak ez dituela guztiz betetzen, ez funtzionalki ezta ekonomikoki ere. Horrez gain, hitzarmena ez dator bat Sektore Publikoko Erregimen Juridikoaren 40/2015 legeak hitzarmenentzako ezarritakoarekin.

Bi erakundeak aitortzen dute parkearen mantenurako beharrezkoa diren lanak adosteko nahia dutela. Azpeitiko herriarentzat parke honek badu interes orokor bat eta Aldundiari interesatzen zaio parkearen egoera ona jarraian mantentzea.

Egoera honen aurrean bi erakundeak elkarrekin parkearen guneak definitu dituzte, mantenuaren egungo kostua zein den adostu dute— 84.273,75 € BEZa barne- eta proposatu dute aurreko hitzarmena bertan behera uztea, eta hitzarmen berri bat egitea.

Hitzarmen berri honetan erakunde bakoitzaren ohiko jarduerak eta ez ohikoak zehaztu dira, jarraitu behar diren tramiteak adieraziz.

Batzordekideek hitzarmenaren edukina jaso dute, eta ados azaldu dira **IDAZKARITZA**

Esandakoa kontuan izanik Udalbatzari proposatu nahi zaio:

a) 1984ko maiatzaren 25ean Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Azpeitiko Udalak Loiolako Parkea kontserbatu, mantendu, zaindu eta garbitzeko sinatu zuten Lankidetza Hitzarmena deuseztatzeko agiria onartzea.



b) Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Azpeitiko Udalaren arteko Lankidetza Hitzarmena onartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoa den Loiola Santutegiaren parkea mantentzeko eta kontserbatzeko.

Bi agirietan jaso dira hartuko diren akordioen aurrekariak eta oinarri juridikoak.

-0-

Udalbatzaren lehendakariak hitza hartu eta adierazi du Lankidetza hitzarmenaren helburua Azpeitiko herriarentzat eta, oro har, Gipuzkoa osoarentzat hain enblematikoa den erabilera publikoko parke hau egoera onenean kontserbatzea dela. Azpeitiko Udalak, orain arte bezala, lan horretan arituko da, baina gaur egun eremu honetako beharrak hobeto zehaztuko dira.

EAJ-PNV taldeko kideek ados azaldu dira bai aurreko hitzarmena deuseztatzeko proposamenarekin bai etorkizunerako sinatu nahi den hitzarmenarekin ere.

Esandakoa kontuan izanik, eta Estrategia eta Hirigintzako batzorde berriemaileak 2018ko irailaren 11n emandako ikusita, Udalbatzako kideek aho batez ADOSTU DUTE:

A)1984ko maiatzaren 25ean Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Azpeitiko Udalak Loiolako Parkea kontserbatu, mantendu, zaindu eta garbitzeko sinatu zuten Lankidetza Hitzarmena deuseztatzeko **agiria*** onartzea, eta Udalaren alkatearen gain uztea agiri horren formalizazioa. Hori horrela onartu da:

LEHENA.- Deuseztatzea, elkarren arteko adostasunez, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Azpeitiko Udalak 1984ko maiatzaren 25ean sinatu zuten lankidetza hitzarmena, Loiolako Parkea kontserbatu, mantendu, zaindu eta garbitzekoa.

BIGARRENA.- Gipuzkoako Foru Aldundiak aipatu hitzarmenari jarraituz beregain hartutako obligazio ekonomikoak, 2017ko urtarrilaren 1etik gaur artekoak, HIRUROGEITA HAMABOST MILA ETA BEDERATZI EURO (75.009 €) dira guztira.

HIRUGARRENA.- Deuseztapen agiria sinatuta, bi aldeek deuseztatutzat ematen dute 1984ko maiatzaren 25ean sinatutako lankidetza hitzarmena, eta adierazten dute ordaindutzat eta likidatutzat jotzen dituztela bakoitzaren obligazioak, eta ez diotela elkarri beste ezer erreklamatu.

*Agiria bi aldeek behar bezala sinatuta espedientean jasoko da.

-0-



Azpeitiko Udala

b) Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Azpeitiko Udalaren arteko **Lankidetza Hitzarmena** onartzea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoa den Loiola Santutegiaren parkea mantentzeko eta kontserbatzeko, eta Udalaren alkatearen gain uztea Lankidetza hitzarmenaren formalizazioa.

* Lankidetza Hitzarmenaren edukia eta eranskina espedientean jasoko dira behar bezala sinatuta.

Hitzarmenaren baitan bi administrazioek hartuko dituzten konpromisoak honako hauek dira:

LEHENA.- Xedea.

Hitzarmenaren xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Azpeitiko Udalaren arteko lankidetza esparrua ezartzea, lortzeko Loiolako Parkea, erabilera publikokoa dena, kontserbazio egoera onean mantentzea. Esku-hartze eremuaren planoa erantsi da. (I. eranskina).

BIGARRENA.- Jarduketaren definizioa.

1. Azpeitiko Udala arduratuko da Loiolako Parkea garbitu, mantendu eta kontserbatzeko lanez.

Azpeitiko Udalak gauzatu behar dituen ohiko jarduketa horiek Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatzeko ditu. Jarduketa horiek, funtsean, hauek dira:

a) Berdeguneak eta hartxintzarreko bideak garbitzea. Lan horien barruan sartzen dira: belarra moztea, palaxuak moztea, zuhaitzak urtean behin kimatzea eta, beharrezkoa denean, zuhaitzak moztea.

b) Zolatutako eremuak egunero garbitzea.

c) Espaloiak eta harriz zolatutako plazak presiopeko urez garbitzea.

d) Parkeko estatuak eta monumentuak garbitzea.

e) Hiri altzariak mantentzea.

f) Informazio panelak mantendu eta berritzea.

g) Pibote ezkutagarrien sistema mantentzea.

h) Argiteria publikoa mantentzea (argi puntuak).

i) Erreka legarrezko bideak birjartzea.

j) zuhaitzak birjartzeko landaketa berriak egitea.

2. Azpeitiko Udalak zuzenean gauza ditzake lan horiek, edo Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoak, apirilaren 2koak, 85.2 artikuluan ezarritako kudeaketa aukeretakoren bat erabiliz. Jarduketa horiek gauzatzeko egin daitezkeen kontratuak sektore publikoko kontratuen legedian aurreikusitakoari doituko zaizkio.

3. Gainera, Azpeitiko Udala arduratuko da, bere kontura, Parkea zaintzeaz, eta baita Parkeko argiteria publikoaren kostua ordaintzeaz.



4. Loiolako Parkeak behar dituen hobekuntza jarduketa puntualak, aparteko izaera dutenak, dokumentu honen bederatzigarren klausulan xedatutakoaren arabera gauzatuko dira.

HIRUGARRENA.- Garbiketa, mantentze eta kontserbazio lanen finantzazioa

Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuko ditu Loiolako Parkearen garbiketa, mantentze eta kontserbaziorako ohiko lanak, bigarren klausulan deskribatutakoak.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren urteko gehieneko ekarpena, bigarren klausulan deskribatutako lanak gauzatzeko **84.275,73 euro** da.

2018ko ekitaldiari dagokion ekarpena indarrean dagoen aurrekontuko kargura ordainduko da.

Ekitaldi bakoitzari dagokion gastua finantzatzeko, organo eskudunak urte bakoitzari dagokion gastua onartzea sustatuko du, dagozkion foru aurrekontuen kargura.

2018an, Gipuzkoako Foru Aldundiak kopuru osoa ordainduko du, hitzarmena sinatzen denetik abenduaren 31ra arte igaroko den denbora tarteak kontuan hartu gabe.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, urtero, abenduan egingo du ordainketa, Azpeitiko Udalak zehaztuko duen konturako transferentzia eginez, egindako lanak justifikatu ondoren.

Horretarako, Azpeitiko Udalak, hilabete lehenago, egindako jardueren memoria xehakaturik aurkeztuko du, Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusiko teknikariek onespenez eman dezaten.

Azpeitiko Udalak beregain hartuko ditu arrazoi desberdinen ondorioz sor daitezkeen gorabehera ekonomikoak, hala nola prezio berrikuspenen ondoriozkoak, kontratua likidatzearen ondoriozkoak, edo Loiolako Parkea garbitu, kontserbatu eta mantentzeko zerbitzuetan onar daitezkeen beste edozein aldaketaren ondoriozkoak.

LAUGARRENA.- Erantzukizuna.

1. Azpeitiko Udalaren obligazioa izango da Loiolako Parkea kontserbatu, mantendu, zaindu eta garbitzeko zerbitzuak ematea, behar bezalako arduraz eta arretaz; eta berak erantzungo die zerbitzu horien funtzionamenduaren ondorioz Parkean sor litezkeen kalteak.

Salbuespenez Udalak ulertzen badu ez dagokiola erantzukizun espezifikoaren bat beregain hartzea, Batzorde Mistoari planteatuko zaio auzi hori, eta



Azpeitiko Udala

honek, erantzukizunen banaketa aztertuko du, hitzarmen honen hamaikagarren klausularen bigarren paragrafoan ezarritakoaren kaltetan izan gabe.

BOSGARRENA.- Indarraldia.

Lankidetzat hitzarmenaren epea lau (4) urtekoa izango da, hitzarmena sinatzen den egunetik aurrera.

Aurreikusitako epe hori amaitu aurretik, edozein unetan, hitzarmena sinatzen duten aldeek aho batez erabaki dezakete hitzarmena beste lau (4) urtez luzatzea, edo hitzarmena suntsitzea.

SEIGARRENA.- Jarraipen Batzordea.

Aldeek onartutako obligazioak fideltasunez eta puntualki betetzen dituztela zaintzeko, eta hitzarmenean jasotako jarduketak ongi gauzatzen direla bermatzeko, jarraipen batzorde bat sortuko da, alde bakoitzeko bina ordezkari osatua.

Hauk dira, besteak beste, batzorde horren funtzioak:

Hitzarmen honetan jaso diren jarduketan jarraipena egitea.

a) Ezohiko izaeraz gauzatu beharreko jarduerak egiteko beharrezkoa den koordinazioa sustatzea.

b) Hitzarmena betetzerakoan eta interpretatzerakoan sor daitezkeen arazoak konpontzea.

Batzorde horren funtzionamendua arautuko da herri administrazioetako kide anitzeko organoen erregimena arautzen duen araudia kontuan hartuta.

Batzordea behar adina aldiz elkartuko da, alde batek eskatuta.

ZAZPIGARRENA.- Aldaketak.

Egoeragatik beharrezkoa denean, hitzarmena aldatu egingo da, bi entitateak aldeztu aurretik ados jarri ondoren, dagokion aldaketa dokumentua sinatuta, 40/2015 Legean xedatutakoari jarraituz.

ZORTZIGARRENA.- Iraungitzea.



Hitzarmena amaitutzat emango da arrazoi hauetakoren bat egonez gero:

a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.

b) Hitzarmena sinatu duten bi aldeek aho bateko akordioa.

c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.

Kasu honetan, hitzarmena bete ez duen aldeari errekerimendua jakinaraz diezaioke beste aldeak, hogeita hamar eguneko epea emanez, bete ez duen obligazioa betetzeko. Errekerimendua jarraipen batzordeko arduradunei jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro eta obligazioak bete gabe jarraituko balu, errekerimendua bidali duen aldeak besteari jakinaraziko dio hitzarmena deuseztatzeko arrazoi dagoela, eta hitzarmena amaitutzat emango da.

40/2015 Legeak, urriaren lekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 49 e) eta 51.2.c) artikuluetan ezarritakoaren arabera kalte ordaina ordaindu beharko balitz, kalte ordaina hitzarmenaren jarraipen batzordeak ebaluatu eta erabakiko du. Adostasunik egongo ez balitz, hamaikagarren klausulan ezarritakoa beteko da.

d) Aurreko horiez gain, hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusitako beste edozein kausaren ondorioz.

BEDERATZIGARRENA.- Hobekuntza jarduerak.

Loiolako Parkearen ohiko mantentze lanez gain, aparteko izaeraz, konponketako edo hobekuntzako jarduera puntualen bat egin behar bada, jarduera hori hitzarmen honetan itundutako finantzazio, konpromiso eta obligazioetatik kanpo geratuko da.

Udalak aparteko jarduera horietakoren bat egin behar dela ikusten badu, behar hori planteatuko du, egin dituen ohiko lanen urteko memoriarekin batera. Hala ere, jarduketari lehenbailehen heldu behar zaiola ikusten badu, edozein unetan aurrez dezake jarduketa proposamena.

Jarduketa proposamen horrekin batera Parkearen ohiko mantentze lanetan izan dezakeen eragina deskribatuko du. Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak, edo etorkizunean ondare gaien inguruko eskumena izan dezakeen departamentuak, Udalak aurreztutako proposamena aztertuko du, eta, une horretan dituen aurrekontu baliabideen arabera, eta egoki irizten badiu, jarduketa gauzatzea sustatuko du.



Azpeitiko Udala

HAMARGARRENA.- Jakinarazpenak.

Jakinarazpenetarako eta komunikaziorako, Foru Aldundiaren helbidea Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren bulegoena izango da (Julio Caro Baroja plaza 2, 3. solairua, Donostia), eta Azpeitiko Udalarena, berriz, plaza nagusiko 5. zenbakian dauden bulegoak. Helbidea aldatzen bada beste alderdiari jakinarazi beharko zaio.

HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmenaren izaera eta jurisdikzioa.

Hitzarmen hau izaera administratiboko hitzarmen bat da, eta arau izango ditu 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta baita aplikatzekoak zaizkion zuzenbide administratiboko gainerako arauak ere.

Hitzarmen hau interpretatu eta betetzeko orduan auzirik sortzen bada, eta jarraipen batzordeak ebatzi ez baditu, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardura eta eskumena izango da horiek ebaztea.

Kontratu honetatik sor daitezkeen gorabehera edo eztabaida guztietarako, aldeak, beren foruei berariaz uko eginda, Donostiako epaitegien mende bakarrik jartzen dira, ez beste inoren mende.

Eta horrela jasoak gera dadin eta, Alkate Udalburuaren oniritziarekin ziurtagiri hau eman dut, Azpeitian, bi mila hamazortziko urriaren hogeita hamaikan.

O.E.
ALKATEA,



